

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTE

ASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONES

VIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

**INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO**

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak 280.000 euroko diru-laguntza eman du Tuterako Lourdes auzoko 122 etxebizitzaren energia-birgaikuntzarako

*Laguntza hori Ecocity-Lourdes Renove energia-eraginkortasunerako eta -aurrezkirako proiektuan sartzen da*

Miércoles, 27 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren bidez, Tuterako Udalarekin eta Erriberako hiriburuko Lourdes auzoko jabeen erkidegoekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu du gaur Ecocity-Lourdes Renove proiektura bildutako 122 etxebizitzaren isolamendu teknikoa hobetzeko. Proiektu horren bidez, energia-aurrezkiaren eta –efizientziaren arloko jardunak sustatu nahi dira.



Roig kontseilaria eta Casado Tuterako Lourdes auzoko kide batzuekin.

Foru Gobernuak, zaharberritu beharreko etxebizitzetan jabeen 280.000 euroko diru-laguntza emango die. Horren bidez, lehenengo eta behin, berogailu-eskaria murriztuko da eta horrek energia- eta ekonomia-aurrezki eragingo du. Horrez gain, 50 urteko batez besteko antzintasuna duten eraikinen kanpoko estetika aldatu ahal izango da. Tuterako Udala lankidetzan arituko da, diru-laguntzaren objektu diren jardunak gainbegiratu, eta laguntza erkidego onuradunen artean eman eta banatuko du.

Hitzarmena hurrengo hauek sinatu dute: José María Roig Aldasoro Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak; Luis Casado Oliver Tuterako alkateak; eta jabeen erkidegoetako presidente hauek: Begoña García Marqués, Susana Pérez Domínguez, Carmen Ruiz Sola, Javier Felipe Royo, Flora García Delgado, Jesús Alfredo Ortega, Calixto Ausejo Escribano eta Julia M<sup>a</sup> Sánchez Jara.

Ingurutzailerik termikoetan egingo diren jardunen barruan, eraikin horien fatxadak eta teilatuak eraikuntzaren gaur egungo kode teknikora egokituko dira, isolatze termikoari dagokionez. Zehatz esanda, fatxadak kanpoaldetik isolatuko dira, leiho bikoitzak jarriko dira igorpen urriko eta eguzki-kontrolerako beirekin, teilatuak berritu eta isolatuko dira eta behe-solairuetako etxebizitzak isolatuko dira. Ingurutzailerik termikoa zaharberrituko den atari gehienetan igogailuak jarriko dira oztopo

arkitektonikoak kentzeko, eta eraikineko instalazio orokorren zati bat berrituko da. Jardun horiek zortzi ataritan egingo dira: Rafael Delgado Garcés, 12 (18 etxebizitza), Rafael Delgado Garcés, 10 (18 etxebizitza), Rafael Delgado Garcés, 8 (18 etxebizitza), Rafael Delgado Garcés, 6 (18 etxebizitza), Manuel Robles Pintado, 5 (8 etxebizitza), Caparroso Paños, 11 (18 etxebizitza), Caparroso Paños, 3 (18 etxebizitza), Clemos Burgaleta, 3 (6 etxebizitza). Atari horretan ez da igogailua sartzen, eraikinak behe-solairua + 2 solairu baititu.

Diru-laguntza erkidego horietako etxebizitzaren azaleraren modu proportzionalan banatuko da, eta ezin du gainditu energia-birgaitzearen kostuaren %22.

### **Energia berriztagarrien erabilera**

Tuterako Lourdes auzoan 8.600 pertsona bizi dira eta 2.000 etxebizitza baino gehiago ditu. Isolamendu termikoaren arloko konponbideez gain, Ecocity - Lourdes Renove jardunean, 50eko eta 70eko hamarkaden artean eraikitako tipologia desberdinetako etxebizitzak barruan hartzen dituen horretan, berogailuan energia berriztagarriak erabiltzea aurreikusi da.

Energia-aurrezkiaren arloan Espainian dagoen araudiko betekizunak gainditzen dituzten etxebizitzaren zaharberitze bakarra da Nafarroan. Horrez gain, Europako Batzordeko I+G Esparru Programetako funtsak dituen bakarra da.

Birgaikuntzak hiru lan-ildo ditu: isolamendu termikoa hobetzea, etxebizitzaren ingurutzailerako termikoetan jardunak eginez berogailu-beharrizana murrizteko; instalazio termikoen energia-efizientzia hobetzea, 486 etxebizitzari zerbitzua ematen dion berogailu-instalazio zentralizatua eta horren banaketa-sareak berrituz; eta energia berriztagarriak erabiltzea berogailu zentralizatua berritzearen bidez. Jardun horretan, banaketa-sare osoa ordezteaz eta monitorizazio-osagaiak gehitzeaz gain, energia berriztagarriaren iturri berria gehituko da, biomasa. Horrek etxebizitza hauek eskatutako energiaren %80 ekoitziko du gutxi gorabehera; gainerako energia gasarekin sortuko da, eta, era berean, gas-galdaren sala osorik berrituko da. Gaur egun, biomasa-galdaren sala amaituta dago, eta maiatzaren 2tik aurrera, berogailu-zerbitzuak funtzionatzeari uzten dionean, etxebizitzaren barruan zein gas-galdaren salan lanak hasiko dira. Sala horrek ez du gaur egungo kokapena aldatuko.

Lourdes Renove proiektuak Europako Concerto programaren barruko Ecocity proiektua osatzen du. Horretan parte hartzen dute Nafarroako Gobernuak, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren bidez; Tuterako Udalak; Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalak (CENER); Centro Nacional Integrado de Formación en Energías Renovables (CENIFER) zentroak; Zabala aholkularitzak; Erriberako ORVE bulegoak eta Nasursak.